



Gizalari

Zerbitzu publikoetako langileen boletina

ELAk epaitegietara joko du Rajoyren 20/2012 dekretuaren aurka

MURRIZKETEN AURKA FRONTE GUZTIETAN



ELAK aukera argia egin du mobilizazioaren, sozializazioaren eta konfrontazioaren alde, klase politikoa kapitalaren mesedetan egiten ari den politikak aldatzera behartzeko, eta amaiera emateko ere zerbitzu publikoen desegituratze sistematikoari zein arlo honetako langileen kontrako eraso kupidagabeari.

Bestalde, ELAn beharrezko jo dugu eraso horri aurre egiteko gure esku dauden bitarteko guztiak aztertu eta erabiltzea. Horregatik, **sindikatu**ko zerbitzu juridikoarekin aztertu ostean erasoak auzitara eramateko aukerak, mobilizazioaz gainera bide judizialera jotzea ere erabaki dugu, 2012ko soldataren %7tik gora kendu izana salatzeke.

Erabaki hori justifikaziorik gabea eta immorala da, eta **azterketa juridikoa egin ondoren uste dugu bera indargabetzeko modurik badagoe**la, Espainiako Gobernuak esku-menak inbaditu dituelako eta **Lege-Dekretuaren formula ez delako** behar bezala erabili berebizi-

ko premia eta beharra argudiatuta.

Halaber, modu subsidiarioan, uste dugu ez dela zuzenbidearen arabera-koa 14. ordainsaria atzera eraginez kentzea, eta zenbait kasutan Errege-Dekretuak ezarritakoa baino zenbateko handiagoa kendu izan dela.

Horrenbestez, Espainiako gobernuak prozesu jurisdikzionaletarako kostuak eta tasa judizialak ezartzea erabaki ondoren **administrazio publikoetako langile guztientzako bermea izango duen estrategia juridiko bat marraztu dugu, demandak eta erreklamazioak eginez.**

■ **Funtzionarioei dagokienez, ELAk banakako erreklamazioak egingo ditu arlo eta sektore desberdinetan, eta prozedura hauetan lortzen den emaitza ikusita, estrategia administratioko arlo guztietara hedatuko dugu.**

● Inork ez dio bere kontu prozedurei ekin behar ikusi arte erreklamazio hauek arrakasta izateko zenbaterainoko aukera duten. Administrazioarekiko lehen erreklamazioa hasita auzibidean jarraipena eman behar zaio, arlo administratiboan onartu ezean; honek kostuak ekar litzake epaia aldekoa ez bada. Bestalde, erreklamazio administratiiboari jarraipenik eman ezean, gerora zenbateko horiek erreklamatzeko aukera galduko litzateke, auzibidean sartutako demandak irabaziz gatik ere.

● Erreklamazio honek 5 urteko preskripzio epea du; beraz, nahikoa denbora badago epaia hedatzeko eskaria egiteko, ELAk sartutako demandak irabaztekoan, nahiz banakako erreklamazioa egiteko.

■ **Laboralei dagokienez, hainbat gatazka kolektibo sartuko dugu, arlo eta sektore guztietarako.** Epaia ematen denean, aldekoa balitz, banakako erreklamazioak egin beharko dira, kobratzeko esku-bidea gauzatze aldera. Kasu honetan preskripzio epea urtebetekoa da; beraz, epe horren barruan epairik ez balego, beste estrategia bat erabakiko dugu preskripzio epea eteteko.

Pairatzen ari garen erasoak eta bestelako politika bat egitera behartuko duen mobilizazioaren beharrak inoiz baino premia handiagoa bihurtzen du langileak ELA moduko sindikatu autonomo-ikuspuntuko partidario zein ekonomikotik- batean antolatzea. ELAk ez die inongo babesik emango murrizteko politikei; aldiz, aurre egingo die, gobernu zein patronalak beste politika batzuk egitera behartzeko.

Lankidetu!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA